

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

1772, hura bai patataren urtea!

PARIS, 1772. Patatak jangarriak zirela erabaki zuen Frantziako hiriburuko Medikuntza Fakultateak. Bizpahiru mende lehenago Amerikatik iritsitako elikagai berriek, kakaoak edo piperrek esaterako, berehalako arrakasta izan zuten Europan. Baina, Patataren Nazioarteko Urtean gauden honetan harrigarria badirudi ere, garai hartan Andeatatik etorritako tuberkulua baztertu egin zuten elikagai gisa.

Gehienez ganadua elikatzeko erabiltzen zuten baina, aukeran, nahiago zuten landare gaiztoarekin inolako harremanik ez izan. Medikuek patatak osasunari kalte egiten ziola esaten zuten, eta herriaren sineskeriek berehala mada-rikatu zuten labore amerikarra; “deabruaren sustraia” ezizena ipini zioten hainbat lekutan. Mesfidantza hark bazuen, hala ere, benetako oinarririk: argitan eta toki hezeetan gordez gero, patatak solanina izeneko substantzia toxikoa sortzen du, egostean ere desagertzen ez dena. 1784an, adibidez, Frantzian patata lantzea debekatu zuten, besteak beste, legenarra eragiten zuelakoan.

Salbuespena Prusia izan zen. Batetik, XVII. mendeko baldintza klimatiko berriek zerealen uzta suntsitzen zuten, baina egokiak ziren patata-rako. Bestetik, Hogeita Hamar Urteko Gerrak (1618-1648) gosea ekarri zien prusiarrei. Ondorioz, Federiko II.a Handiak patataren ustiaketa sustatu zuen bere agindupeko lurretan. Armada-

ko soldaduak ere erresuma osoan zabaldu zituen, nekazariari erraz gorde eta prestatzen zen laborearen onurak azaltzeko. Horri esker, Prusiako herria eta armada jendetsua elikatu ahal izan zituzten, baita Zazpi Urteko Gerran (1756-1763) preso egindako atzerritarrek ere.

Preso horietako bat Antoine-Augustin Parmentier frantziar botikaria zen. Etxera osorik –eta legenar zantzurik gabe– itzuli zenean,

patatak mendetan jasandako bidegabekeria konpontzeari ekin zion. Horrenbestez, 1772an Besançoneko Zientzia Akademiak goseteen aurkako elikagaien lehiaketa antolatu zuenean, Parmentierrek patataren inguruko lana aurkeztu zuen. Akademiako kideek lana saritu zuten eta, neurri handi batean, horren ondorioz erabaki zuen Medikuntza Fakultateak patata gizakiak jateko modukoa zela.

Profesionalen oztopoa gaindituta, herritarren sinesmen eta ohiturak aldatzeko ordua iritsi zen. Lan gaitza zen, baina Luis XVI.aren laguntza izan zuen Parmentierrek. Erregeak hainbat soro utzi zizkion ikerketa egiten jarrai zezan, eta soroak gau eta egun zainduko zituen soldadu taldea ere ipini zuen haren agindupean. Baina benetako bultzada Frantziar Iraultzak eta Gerra Napoleonikoek eman zioten patatari. Gosea apaltzeko aproposa zenez, haren kontsumoa Europa osoan zabaldu zen eta, azkenean, oinarriko elikagai bihurtu zen deabruaren sustraia. ■



Vincent Van Gogh-en *Patata-jaleak*. XVIII. mendearen amaiera arte Europan ez zen halako irudirik ikusten, patatak osasunari kalte egiten ziola uste baitzuten.

ARRASTOAK

DONOSTIA ITSAS HIRIA izeneko erakusketa ikusgai dago Donostiako Untzi Museoan, maiatzaren 28a bitarte. Erakusketan Donostiak Bizkaiko Golkoarekin izan duen harremana aztertzen da, erromatarren garaitik gaur arte. Gipuzkoako hiri nagusian, itsasoarekin zerikusia duten jarduerak Erdi Arotik XIX. mendera garatu ziren bereziki. Kontuan hartu behar da, gainera, Pasaiako badia Donostiaren kontrolpean izan zela urte luzez.

Orotara 200 bat ale bildu dituzte (ilustrazioak, grabatuak, koadroak, afixak, argazkiak, txanponak...), guztiak merkataritzarekin, arrantzarekin, bale-arrantzarekin edo ontzigintzarekin zerikusia dutenak, baita piratekin lotutakoak ere. XIX. mende amaieran jarduerak tradizional horiek alde batera uzten hasi ziren, eta Donostiaren alde turistikoa indartzen hasi zen. Itsasoarekiko harremana aldatu zen orduan, baina ez zen eten.



Donostiako antzinako irudia.